

# ASTIGARRAGAKO IRAUKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

## EKINTZA PLANA

*2013ko abendua*



Prozesuaren laguntza teknikoa: Minuartia Enea-Ikertalde



# ASTIGARRAGAKO IRAUNKORTASUNAERAKO EKINTZA PLANA 2013-2020

---

## *TOKIKO EKINTZA PLANA*

*2013ko abendua*

### **ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Astigarragako Udala**

Andoni Gartzia, Alkatea

Izaskun Txintxurreta, Tokiko Agenda 21eko Teknikaria

### **LAGUNTZA TEKNIKOA**

#### **ENEa eta IKERTALDE**

Ana López. Nekazal Ingeniaria (Enea)

Aiala Zubieta. Biologian lizentziaduna (Enea)

Ainhoa Mitxelena. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua (Ikertalde)

Eider Larrañaga. Biologian lizentziaduna (Enea)

Susana Torregaray. Geologian lizentziaduna (Enea)

Yajaira Vázquez. Ingurumen Zientzietan lizentziaduna (Enea)

# ASTIGARRAGAKO IRAUNKORTASUNAERAKO EKINTZA PLANA

## 2013-2020

---

### *TOKIKO EKINTZA PLANA*

*2013ko abendua*

#### **O. LABURPEN EXEKUTIBOA**

<b>1. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA: IKUSPEGIA, XEDEAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK ....</b>	<b>1</b>
Ikuspegia.....	1
Xedeak .....	1
Helburu estrategikoak.....	3
<b>2. EKINTZA PLANA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. EKINTZA PLANAREN SEGIMENDUA .....</b>	<b>19</b>
Ekintza Planaren gauzatzearen ebaluazioa.....	19
Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema .....	19
Ekintza Planaren urteko programazioa.....	19

# ASTIGARRAGAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA 2013-2020

---

Astigarragako Tokiko Agenda 21eko lehenengo planaren epealdia amaituta, datozen urtetarako lan ildo zehazten dituen Plan berri bat definitu da.

Astigarragako diagnostikoa oinarri hartuz eta udalerrri mailan gauzatutako hausnarketa estrategikoan zehaztutako helburuak lortze aldera, 2013-2020 epealdirako Ekintza Plan berria garatu da.

95 ekintza jasotzen dituen Plan honek datozen 8 urtetarako lan ildo nagusiak zehazten ditu, lurralde, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan eragitea helburu duelarik.

Planean jasotako helburuetako bat **lurzoruaren** erabilera arduratsua eta anitza sustatzea eta **mugikortasun** ohitura iraunkorrak bideratzea da. Arlo honetan, behar erreale tara egokitutako etxebizitza politika garatzea helburu duten ekintzak jasotzen dira. Bestalde, atal honetan jasotako ekintzek motorrik gabeko mugikortasun ereduak sustatzea eta garraio moduak bermatzea helburu dute baita ere.

**Ingurumenari** dagokionez, ingurumen kalitatea hobetzeko neurriak hartu eta ingurune naturala mantendu eta balorean jartzea da helburu nagusia. Bertan bidodibertsitatearen berreskurapena eta kontserbazioa, natur baliabideen kontserbazioa eta ingurumen kalitatea eta arriskuak lantzen dira besteak beste. Honekin batera, ura energia eta hondakinen kudeaketa eraginkorraren alde lan egitea helburu duten ekintzak ere jasotzen dira.

**Ekonomia** arloan udalerriko garapen ekonomikoa sustatzea da behar nagusia, berau enpleguaren sorreran eta ekintzaitetzan oinarrituko delarik.

Planak garatzen duen beste helburu estrategikoetako bat **herritarren bizi kalitatea** hobetzera bideratuta dago, horretarako herritarrei zuzendutako zerbitzuak egokituz. Arlo honetan giza talde desberdinei babes ematea eta berdintasun baloreak eta kohesioaren alde lan egitea aurreikusten da. Honekin batera, hezkuntza eskaintzaren sustapena eta kirol, zein kultura azpiegituraren eta eskaintzaren sustapenaren alde lan egingo da baita ere.

**Hizkuntza politika integralak** ere badu lekua plan honetan, hizkuntzaren barne zein kanpo erabileraren inguruko ekintzak jasoz.


Udala eta herritarren arteko **komunikazioa** hobetu eta **parte-hartze** aktiboa sustatzeko bideak zabaltzea da plan honen bitartez landuko den beste arlo nagusietako bat.



# 1. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA: IKUSPEGIA, XEDEAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

## Ikuspegia

Astigarragako Ikuspegia Ekintza planaren definizioan parte hartu duten eragileekin batera definitu da:



Eta 2020rako Astigarragako **Ikuspegia** ondorengoa da...

**2025ean Astigarragak bere izaera sendo mantendu du, euskara eta bertako ohiturak oinarrizko baloreak izanik.**

**Astigarraga adin, jenero eta egoera fisiko zein psikiko guztietako pertsoneri aukerak eskaintzen dizkien udalerria da, enplegu arloan ere berreskuratzea eman delarik. Herritarrei eta bisitariei zuzenduriko kultura eta aisialdi eskaintza zabala du, eskualde mailako turismo erreferentea izanik.**

**Ingurumenaren berreskuratzean eta babesean aurrerapauso handiak eman dira eta balorean jarri dira. Garapen jasangarri arduratsuaren aldeko apustu argia egin da, udalerraren kudeaketan herritarren parte hartzea eta inplikazioa nabarmenki handitu delarik.**

Tokiko Ekintza Plana helburuekiko kudeaketa oinarri hartuz dago diseinatuta, hau da, udalerraren ingurumen eta giza egoera hobetzeko emaitzak lortzeko helburuz. Xedeek Planaren ezartzean zehar lortzeko hito kuantitatiboak definitzen dituzte, eta tokiko iraunkortasun adierazleen bidez hauen jarraipen bat egingo da.

Informazio honek egindako ahalegina eta lortutako benetako hobekuntza emaitzak alderatzea ahalbidetzen du eta, modu horretan, neurrien efikazia -lortutako hobekuntzak- eta horien eraginkortasuna -egindako ahaleginarekin lortutako hobekuntzak- baloratzea.

Jarraian Astigarragako Tokiko Ekintza Planaren eremuan definitutako **Xedeak** aurkezten dira:

	XEDEA	ERREFERENTZIZKO BALIOA	EGUNGO BALIOA
ENERGIA	Energiaren azken kontsumoaren %8 energia berriztagarrietatik etortzea	3E-2020 (Euskadiko Energia Estrategia 2020): %17 Egungo egoera Euskadi mailan: %8 inguru	%0,4
HONDAKINAK	Gaika biltzen den hondakinen kopurua %90 izatea	2008-2016 Aurrerapen Dokumentua Garatzeko Estrategia (2016rako, %60)	%29,8 (2012. urtea)
EKPB	Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdean maila aurreratuan kokatzea (lhobek zehazten dituen parametroen arabera)	-	Oinarrizko mailan
ENPLEGUA	Langabezia-tasa Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa izatea	-	%9,8 (Astigarraga) % 12,4 (Gipuzkoa)
GARAPEN EKONOMIKOA	Establezimenduen dentsitatea %5ean gehitzea (establezimendu kop/ 1000 biz)	Euskadi mailan (2006): %23,3	173,3 establ. / 1000 biz. (2012. urtea)
3. ADINA	Adinekoentzako etxebizitza babestuetan dauden plazak 45 izatea (65 urte edo gehiagoko 1.000 biztanleko)	Gipuzkoako batez besteko 43,08 etxebizitza/65 urte edo gehiagoko 1.000 biztanleko	28,32 (2012. urtea)
ETXEBIZITZA	Etxebizitza hutsak dauden etxebizitza parke osoaren %7a izatea.	Gipuzkoa 2.000 biztanletik gora dituzten udalerrietako batez bestekoa 7,9%	%12



## Helburu estrategikoak

Azkenik, hurrengo 8 urtetarako Astigarragako lan ildo nagusiak zehazten dituzten 6 helburu estrategiko zehaztu dira:

1. Lurzoruaren erabilera arduratsua eta anitza sustatu eta mugikortasun ohitura iraunkorrak bideratu
2. Ingurumenaren kalitatea hobetzeko neurriak hartu eta ingurune naturala mantendu eta balorean jarri
3. Ura, energia eta hondakinen kudeaketa eraginkorra sustatu udalerrian eta udalean eta zentzuzko kontsumoa bultzatu
4. Udalerriko garapen ekonomikoa sustatu, enpleguaren sorreran eta ekintzailtzan oinarrituz
5. Herritarrei zuzendutako zerbitzuak egokitu, herritarren bizi kalitatea hobetuz
6. Hizkuntza politika integrala garatu eta herritarren eta udalaren arteko harremana hobetu



## 2. EKINTZA PLANA

Jarraian **2013-2020 epealdirako Ekintza Planaren** eskema aurkezten da: Lerro estrategikoak, Programak eta Ekintzak azalduz. Ekintza bakoitzaren kasuan arduradun bat dauka esleituta gutxienez, ekintzaren exekuzioan eta segimenduan ardura izango duelarik; honekin batera ekintzaren epea eta lehentasuna ere zehaztu dira.



# ASTIGARRAGAKO TOKIKO AGENDA 21eko

## II. EKINTZA PLANA

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
1go LERRO ESTRATEGIKOA: LURZORUAREN ERABILERA ARDURATSUA ETA ANITZA SUSTATU ETA MUGIKORTASUN OHITURA IRAUNKORRAK BIDERATU	1.1. Programa: Etxebizitza politika herritarren behar errealerara egokitu eta hiri lurra hobetu iraunkortasun irizpideak txertatuz			
		1.1.1 Alokairuko etxebizitzaren eskaria sustatu eta erraztu, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea erraztuz	Arkitektoa	Alkatetza
		1.1.2 Auzo eta herri gunearen arteko lotura osatu	Arkitektoa	Agenda 21 arduraduna
		1.1.3 Astigarragan andeatuta egon daitezkeen eremuetan paisaia kalitatea hobetu	Arkitektoa	
		1.1.4 Obretan udalerrriaren eta ingurunearen berezko estetika errespetatu	Arkitektoa	
		1.1.5 Administrazio eskudunekin batera, udalerriko ondare arkitektonikoa eta orokorrean baserri-inguruarekin lotutako eraikinak birgaitzea sustatu	Arkitektoa	
	1.2. Programa: Udalerria herritarren mugikortasun behar eta ohituren arabera egokitu			
		1.2.1 Herritarren mugikortasun ohiturak eta garraio publikoaren eskaera aztertu	Agenda 21 arduraduna	
		1.2.2 Industrieguneetako aparkalekuak modu eraginkorrean kudeatzeko eta eskaintza behar bezala dimentsionatzeko beharrezkoak diren hobekuntzak aztertu	Arkitektoa	Agenda 21 arduraduna
		1.2.3 Zama lanak egiteko herri barruko guneen kokapena aztertu eta modu eraginkorrean kudeatu	Obrak eta Zerbitzu burua	Arkitektoa
		1.2.4 Bidegorrien eta oinezkoen sarea garatu	Arkitektoa	Agenda 21 arduraduna

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
		1.3. Programa: Garraio modu iraunkorrak sustatu		
		1.3.1 Motorrik gabeko mugikortasuna bultzatzeko proiektuak aztertu eta sustatu eta bideragarri izatekotan martxan jarri	Agenda 21 arduraduna	
		1.3.2 Baserri edo etxe isolatutan bizi diren eta mugikortasun urria duten biztanleen garraio moduak bermatu	Agenda 21 arduraduna	Alkatetza
		1.3.3 Astigarragako taxi zerbitzua handitzeko kudeaketak egin	Agenda 21 arduraduna	Alkatetza
		1.3.4 Herriarteko garraio publikoaren eskaintza hobetzeko kudeaketa egin	Agenda 21 arduraduna	Alkatetza
		1.3.5 Dagokion erakundeari aldiroko tren geltokia Astigarragarako egiteko eskaeraren jarraipena egin	Arkitektoa	Alkatetza

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA	
<b>2. LERRO ESTRATEGIKOA: INGURUMENAREN KALITATEA HOBETZEKO NEURRIAK HARTU ETA INGURUNE NATURALA MANTENDU ETA BALOREAN JARRI</b>	<b>2.1. Programa: Ingurune naturalaren kudeaketa egokia burutu biodebertsiterako garrantzitsuak diren habitatak errekuperatu eta kontserbatuz</b>				
		2.1.1 Udalerria zeharkatzen duten ibaien ibarrak babestea eta bertako landaredia berreskuratu	Agenda 21 arduraduna		
		2.1.2 Lotura ekologikoko tokiak eta korridoreak zaindu	Agenda 21 arduraduna		
		2.1.3 Astigarragako animalia eta landarediaren inbentarioa egin, eta hauen kontserbazioa bultzatu	Agenda 21 arduraduna		
		2.1.4 Aisialdirako baratzeak antolatu, paisaia, kontserbazio edo hidrologia irizpideekin bateragarriak izanik	Agenda 21 arduraduna		
		2.1.5 Ingurune naturalaren balioak eta balio horiek behar bezala mantentzeko jardunbide egokiak dibulgatzeko kanpainak egin	Agenda 21 arduraduna		
	<b>2.2. Natur baliabideen kontserbazioa bultzatu ikuspegi ekonomiko batetik</b>				
		2.2.1 Nekazal jarduera ingurune naturala babestu eta balioan jartzen lagun dezakeen elementu bezala suspertu eta lagundu	Agenda 21 arduraduna		
		2.2.2 Udaletik turismo berdearekin lotutako azpiegitura eta zerbitzuen aldeko apustua egin: nekazal turismoak, bidegorriak, ibilbideak, ingurunea, ondare arkitektonikoa, bisita gidatuak...	Agenda 21 arduraduna	Behemendi	
		2.2.3 Santiago Mendi Natur Eskolak eta Sagardo Etxeak turismo arloan burutzen duten jarduna babestu eta areagotzen ahalegindu	Agenda 21 arduraduna	Behemendi	
	2.2.4 Behemendiren bidez nekazal arloan zein turismo arloan sustatzen diren ekintza ezberdinetan aktiboki parte hartu	Agenda 21 arduraduna	Behemendi		

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
		<p>2.3. Programa: Ingurumen kalitatea hobetzeko eta ingurumen arriskuak sahiesteko baliabideak ezarri</p> <p>2.3.1 Udal Larrialdi Plana eguneratu, martxan jarri eta ezagutarazi Udal eta herri mailan</p> <p>2.3.2 Industrigunetara egunero bigarren mailako errepidetatik pasatzen diren produktu arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak pasatzen sahiesteko neurriak ezarri</p> <p>2.3.3 Autobabes planen garapena eta ezarpena bermatu udalerrian</p> <p>2.3.4 Jarduera lizentzien datu basea eguneratuta mantendu</p> <p>2.3.5 Industriguneetan jardunbide egokiak eta kutsaduraren prebentziorako neurriak sustatu ingurumen kutsadura saihesteko</p> <p>2.3.6 Ostalaritza jardurekin erlazionatutako gehiegizko zaraten kontrola eta jarraipena egin</p> <p>2.3.7 Lurzoru kutsatuen inbentarioa eguneratu</p>	<p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p>Agenda 21 arduraduna</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p>	<p>Udaltzaingoa</p> <p>Udaltzaingoa</p> <p></p> <p>Udaltzaingoa</p> <p>Ingurumen teknikaria (Jarduerak)</p> <p></p> <p></p>



LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
3. LERRO ESTRATEGIKOA: URA, ENERGIA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA ERAGINKORRA SUSTATU UDALERRIAN ETA UDALEAN ETA ZENTZUZKO KONTSUMOA BULTZATU	<b>3.1. Programa: Udal energia kudeaketa eta plangintza hobetu erabilera ahalik eta eraginkorrena sustatuz</b>			
		3.1.1 Udal ekipamendu guztietako eta argiteria publiko osoko kontsumoa monitorizatu	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.1.2 Energia kontsumoa optimizatuko duen Energia Ekintza Plan bat egin	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.1.3 Energia kontsumo iraunkorra sustatzeko udal ordenantza bat egin	Arkitektoa	Idazkari-kontu hartzailea Obrak eta Zerbitzu burua
		3.1.4 Udal eraikinen ziurtapen energetikoa aurrera eraman	Arkitektoa	Ingurumen teknikaria (Jarduerak)
	<b>3.2. Programa: Udal ekipamenduetan eta argiteri publikoan energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilpena sustatu</b>			
		3.2.1 Egindako energia auditoretzan proposatutako energia eraginkortasun hobekuntzen ekintzak gauzatu	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.2.2 Udal eraikinetako argiak berritzeko ekintza plana guztiz ezarri	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.2.3 Udal eraikinetan energia berriztagarrien ekoizpena sustatzeko aukera ezberdinak aztertu	Obrak eta Zerbitzu burua	Arkitektoa
	<b>3.3. Programa: Udalerriko sektore ezberdinetan energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilpena sustatu</b>			
		3.3.1 Salmentan edo alokairuan jartzen diren etxebizitzien ziurtapen energetikoaren inguruko segimendua egin	Arkitektoa	
		3.3.2 Zerbitzu sektorean eraginkortasun energetikoa sustatzeko mekanismoak ezarri	Obrak eta Zerbitzu burua	
		3.3.3 Etxebizitza eta zerbitzu sektoreetan energiaren aurrezpena eta arrazoizko erabilera sustatu	Agenda 21 arduraduna	

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
<b>3.4. Programa: Hondakinen kudeaketa sistema berriaren jarraipena egin eta hobetu</b>				
		3.4.1 Gaikako bilketaren kontrola, jarraipena eta lortutako datuen azterketa egin	Agenda 21 arduraduna	
		3.4.2 Hondakinen bilketa eta kudeaketa arautzeko ordenantzaren betetzearen jarraipena egin	Agenda 21 arduraduna	
		3.4.3 “Hondakinen sorrerarengatik ordainketa” martxan jartzeko azterketa bat egin	Agenda 21 arduraduna	
		3.4.4 Industria guneko hondakinak Udalak biltzea aztertu	Agenda 21 arduraduna	
<b>3.5. Programa: Hondakinen sorreraren prebentzioa bultzatu</b>				
		3.5.1 Udalerrian egiten den autokonpostaren jarraipena egin eta beharrezkoak diren baliabideak erraztu	Agenda 21 arduraduna	
		3.5.2 Auzokonposta garatzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak erraztu	Agenda 21 arduraduna	
<b>3.6. Programa: Udal ekipamendu eta udalerrri osoaren ur kontsumoa murriztu</b>				
		3.6.1 Udal instalazio guztietan uraren kontsumo eraginkorra eta aurrezpen neurriak ezarri	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.6.2 Sektorizazio eta emarien kontrol zorrotzarekin jarraitu eta detektatzen diren ihes-puntu guztiak konpontzen direla ziurtatu	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua
		3.6.3 Udalerriko ur kontagailu guztiak aldatu teleirakurketa sistemak dituztenak hartuz	Udal zerbitzuen arduraduna	Obrak eta Zerbitzu burua

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
		<p data-bbox="398 119 2152 148"><b>3.7. Programa: Udal maialan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako estrategia bat garatu</b></p> <p data-bbox="842 183 1659 236">3.7.1 Udal saila guztien elkarlanean, EKPBren arloan estrategia bat diseinatu, ezarri eta jarraipena egin</p> <p data-bbox="842 312 1659 336">3.7.2 Udal eraikinetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzea eta mantentzea bultzatu</p> <p data-bbox="842 429 1659 453">3.7.3 Informazio eta sentikortasunerako ekintzak garatu, bereziki, Udal langileei bideratuta</p>	<p data-bbox="1675 197 1899 221">Agenda 21 arduraduna</p> <p data-bbox="1675 312 1899 336">Agenda 21 arduraduna</p> <p data-bbox="1675 429 1899 453">Agenda 21 arduraduna</p>	<p data-bbox="1917 197 2040 221">Idazkaria</p>

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
4. LERRO ESTRATEGIKOA: UDALERRIKO GARAPEN EKONOMIKOA SUSTATU, ENPLEGUAREN SORRERAN ETA EKINTZAILTZAN OINARRITUZ	4.1. Programa: Astigarragan garapen ekonomiko jasagarri bat lortzeko bitartekoak jarri			
		4.1.1 Astigarragako garapen ekonomikoa eta enplegu gaiak jorratzeaz arduratuko den ordezkari bat izendatu	Alkatetza	
		4.1.2 Eskualdeko Enplegu Plana garatu, bertan jasotzen diren lan ildoak jarraituz eta ekintza ezberdinak burutuz	Alkatetza	Eskualdeko Garapen Agentzia
		4.1.3 Enpresen arteko lankidetzak eta sareak sortzea bultzatu merkaturan lehiakorrago izateko bide bezala	Alkatetza	Eskualdeko Garapen Agentzia
		4.1.4 Sektore ezberdinen elkarlana bultzatu, Astigarragan eta eskualdean aisialdia eta turismoarekin lotutako eskaintza integral bat eratzeko	Alkatetza	Behemendi
		4.1.5 Ekonomia alternatiboaren aukera desberdinak aztertu eta bideragarriak ikusten direnak garatu	Alkatetza	
		4.1.6 Astigarragako enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze-maila areagotzeko neurriak bultzatu	Agenda 21 arduraduna	
	4.2. Programa: Ekintzailtza sustatu eta lan aukera berriak sortu			
		4.2.1 Aurrez lan esperientziarik ez duten talde eta gazteekin lan egin euren lan merkatutzeko aukerak areagotze aldera	Alkatetza	Behemendi
		4.2.2 Langileen birkualifikazioa errazteko bitartekoak ezarri	Alkatetza	Behemendi
		4.2.3 Enplegu berrien sorrera sustatu sortzen ari diren sektore (emergente) ezberdinetara bideratuta	Alkatetza	Behemendi
		4.2.4 Enplegu berdeen sorrera sustatu eta lagundu	Alkatetza	Behemendi
		4.2.5 Eskualde mailan dagoen turismo arloko ostaluen hutsunea estaltzera bideratuta ekintzailtza sustatu eta lagundu	Alkatetza	Behemendi

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
5. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK EGOKITU, HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETUZ	5.1. Programa: Beharrik handieneko egoeran dauden giza talde ezberdinei laguntza eta babesa eskaini			
		5.1.1 Astigarragan menpekotasun egoeran dauden adineko biztanleak bere ingurunean mantentzeko ahalegina burutu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Obrak eta zerbitzuak Hirigintza
		5.1.2 Behar handiko kasuetan etxebizitza batera irisgarritasuna ahalbideratuko duten politikak sustatzen jarraitu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	
		5.1.3 Talde ahulenei eta RGI jasotzen duten pertsoneri eragiten dien eskualde mailako Enplegu Plan berria jasotzen diren esku hartzeak martxan jartzea bultzatu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	
		5.1.4 Astigarragan legez kanpoko kokapenak eragozteko neurriak hartu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Udaltzaingoa
		5.1.5 Udaletxean kontratazioetarako klausula sozialak ezartzea bultzatu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Alkatetza
		5.1.6 Udal administrazioetik, egungo ginekologia zerbitzua areagotzeko eskaera abian jarri	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Alkatetza
	5.2. Programa: Hezkuntza eskaintza indartu udalerrri mailan izan daitezkeen behar zehatzen arabera			
		5.2.1 Egungo hezkuntza ekipamendu eta instalazioek dituzten arazo/hutsune nagusiei konponbide egokienak bilatzen saiatu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	Alkatetza Arkitektoa
		5.2.2 Datozen urteetarako herriko hezkuntza beharren ikerketa bat burutu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
		5.2.3 Haur eta gazteak DBH udalerrian bertan egiteko aukera izateko ahaleginak egiten jarraitu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
	<b>5.3. Programa: Kultur azpiegituren eta jardueren eskaintza indartu</b>			
		5.3.1 Kultur etxe berria eraikitzeko proiektua berreskuratzen saiatu	Alkatetza	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria Arkitektoa
		5.3.2 Kultur programazioa modu duin eta egokian eskaintzeko bitarteko irtenbidea bilatu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	Hirigintza Obrak eta Zerbitzu burua
		5.3.3 Gaztelekuak egun dauzkan instalazioak handitu/egokitu edota instalazio egokiagoak bilatzeko prozedura abian jarri	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	Obrak eta Zerbitzu burua
		5.3.4 Programazio aldetik orain artean arrakasta izan duten ekintzak garatzen jarraitu eta ahal den neurrian ekintza berriak sustatu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
		5.3.5 Herritarrek proposatutako kultur jarduerak sustatu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
	<b>5.4. Programa: Ekonomikoki zein eduki aldetik erakargarria den kirol eskaintza bultzatu</b>			
		5.4.1 Kirol instalazio edo ekipamendu ezberdinak egokitu, betiere energia efizientziako aukerak aztertu eta sustatuz	Kirol teknikaria	Alkatetza
		5.4.2 Kirol arloan etengabe sortuz doazen joera berrien azterketa burutu, Astigarragako kirol eskaintza joera hauen arabera egokitu ahal izateko	Kirol teknikaria	

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
	<b>5.5. Programa: Berdintasun baloreak eta balore zibikoak bultzatu eta herritarren arteko kohesioa areagotu</b>			
		5.5.1 Datozen urteetarako Berdintasun Plan berri bat bultzatu eta bertan jasotako lan ildoak garatu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	
		5.5.2 Datozen urteetarako haur eta nerabeei eragiten dien arazo nagusiei aurre egiteko Plan berria diseinatu eta formalizatu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria
		5.5.3 Delitu eta bandalismo kopurua murrizteko prebentzio eta heziketa neurrien alde egin	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria
		5.5.4 Herritarren arteko kohesio-mailaren azterketa burutu	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	
		5.5.5 Biztanleria immigrantea eta bertako biztanleriaren arteko topaketa espazioak martxan jartzea bultzatzen jarraitu, biztanleria hau integratzen lagunduko duen boluntario lana sustatuz eta kanpainak eta ekintzak burutuz	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	
		5.5.6 Belaunaldi ezberdinen arteko dinamika birsortzeko ekimenak martxan jarri	Gizarte zerbitzuetako teknikaria	

LERRO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	EKINTZA	ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
6. LERRO ESTRATEGIKOA: HIZKUNTZA POLITIKA INTEGRALA GARATU ETA HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANA HOBETU	<b>6.1. Programa: Euskararen barne zein kanpo erabilera sustatu</b>			
		6.1.1 Euskararen Barne Erabilera plana osatu eta abiarazi	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
		6.1.2 Euskararen udalerriko plan estrategikoa osatu eta abiarazi	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
		6.1.3 Euskarazko kultur eta aisialdiko eskaintza bermatu eta indartu	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
		6.1.4 Eskualde mailako Planaren arabeko lan ildoak jorratzen jarraitu, euskara arloan, beste bost udalerriekin elkarlanean	Kultura, gaztedia, euskara eta hezkuntza teknikaria	
	<b>6.2 Programa: Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetu eta parte-hartze aktiboa sustatzeko bideak zabaldu</b>			
		6.2.1 Udala eta herritarren arteko komunikazioa errazteko bideak zabaldu eta indartu, udal sail bakoitzeko informazioa zabalduz	Informatikaria	Agenda 21 arduraduna
		6.2.2 TA21ari lotutako parte-hartzea sustatu	Agenda 21 arduraduna	
		6.2.3 Eskola Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21-en arteko lotura ezarri eta sendotu	Agenda 21 arduraduna	
	<b>6.3. Programa: Barne koordinazioa hobetu eta udal politiken zeharkakotasunean oinarritutako kudeaketa sustatu</b>			
		6.3.1 Politikari eta Agenda 21ean parte hartzen duten sail guztien teknikariek osatutako barne mekanismo edo Tokiko Iraunkortasun Batzorde bat sortu	Alkatetza	
		6.3.2 Sail ezberdinen arteko komunikazioa eta elkarlana sustatzeko tresnak ezarri	Alkatetza	
		6.3.3 Ingurumen arloan konpetentziak dituzten Udala langileei zuzendutako formazio, sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak burutu	Agenda 21 arduraduna	



### 3. EKINTZA PLANAREN SEGIMENDUA

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana 8 urtetarako udal kudeaketarako tresna da. Eraginkorra izateko, urteko kudeaketa plana izan behar du. Kudeaketa hori Udalsarea 21ean ezarritako ereduari jarraituz egingo da eta EAeko TA21etan komunak diren jarraipen tresnak erabiliz:

- Ekintza Planen gauzatzearen ebaluazioa
- Tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulua
- Ekintza Planaren urteko programazioa

#### **Ekintza Planaren gauzatzearen ebaluazioa**

Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioaren helburua gauzatze mailaren analisia eta balorazioa egitea da, planaren aurrerapenari buruzko informazioa emanaz.

Ebaluazioa urteko tresna bat da eta urteko azken hiruhilekoan egitea proposatzen da. Modu horretan, udal aurrekontuak egiteko oinarri gisa erabili ahal izango den jardueren programazioa egiteko informazioa eskuragarri egongo da.

Bestalde, kontuan hartuz planak 8 urteko indarraldia izango duela, tarte horretan udalerraren beharrak aldatu egingo direla aurreikusten da. Gutxi gorabehera planaren ekuatorean, berrazterketa sakona egingo da, ahal den neurrian, plana uneko egoerara eguneratu eta egokitzeko.

#### **Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema**

Ebaluazioaren osagarri gisa, TA21eko Ekintza Planen urteko kudeaketa prozesuak tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulua barne hartzen du. Modu horretan, planean ezarritako ekintzak garatzeak udalerraren joerak aldatzen zein neurritan laguntzen duen eta, ondorioz, hasiera batean proposatutako helburuak zein mailatan betetzen ari diren jakin nahi da.

#### **Ekintza Planaren urteko programazioa**

Urteko programazioaren xedea helburuen araberako jardueren urteko programazioa egitea da, honela hobekuntza emaitzak aktiboki bilatuz bai planaren ezarpenean, baita iraunkortasun adierazleetan ere.

Honetarako urteko jarraian azaltzen den informazioa aztertuko da:

- Planeko gai arloen aurrerapen maila. Honetarako gai arlo bakoitzarekin erlazionaturiko ekintzen ezarpen maila identifikatuko da, bakoitzari ezarritako lehentasuna eta epea kontutan hartuz.
- Iraunkortasun adierazleen joera, gai eremu bakoitzeko.

Analisi honetatik abiatuz urtean zehar burutu beharreko jardueren programazioa egingo da, egutegia, arduraduna/k eta aurrekontua esleitzuz.







**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio